

Goi

Goierritarra aldizkaria

407 zenbakia 2011ko irailak 23



**GIPUZKOAKO
BERTSOLARI
TXAPELKETA**

IGARTUBEITI: BASERRIAREN HISTORIA



Nortasun **marka**

DISEINUA, SORKUNTZA GRAFIKOA ETA KOMUNIKAZIOA

www.faktore.net

DO'S formación: kalitatea eta banakako arreta

DO'S FORMACIÓN-en, 30 urteko eskarmentua dugu puntako ikastaroak ematen: hizkuntzak (ingelera, alemana, txinera...), informatika, enpresen kudeaketa, giza baliabideak eta kalitatea.

Enpresa bakoitzaren beharretara moldatzen gara taldeka edo banaka irakatsiz. Horrez gain, klaseak aurrez-aurre, on line edo era mistoan ematen ditugu. Metodologia adinaren arabera aukeratzen dugu, ikaslearen denbora eta ahalegina gehien aprobetxatuz.

Azterketa ofizial desberdinak prestatzen adituak gara eta gure ibilbidean zehar ikasleek azterketen gainditze maila bikaina lortu izan dute. Hau dena irakasle talde bikain bati esker.

Diruz lagundutako ikastaroak ere ematen ditugu, bai LANBIDEren bidez (langabetuentzat), baita HOBETUZen bidez ere (langileentzat).

Dena den, guregana hurbiltzera gomendatzen zaituztegu informazio zehatzagoa jaso ahal izateko.



www.dosformacion.com
Nafarroa etorbidea, 1 - BEASAIN
943 88 03 46 - 656 70 86 31

R.P.S. Nº 45-56/10.

Entzun ezazu itsasoaren soinua...



GAES

Centros Auditivos
Entzumen Zentruak



M6 y M34 audifonoak



90 € / hileko

Finantziazioa 12 hilabetetan

* erosketa finantziatzeko aukera, banketxeak eman behar duen baimenari lotuta egongo da.

Nafarroa Etorbidea, 13 • Tel.: 943 80 55 89 • BEASAIN
J.M. Barandiaran Enp. • Tel.: 943 88 99 88 • ORDIZIA



Ion Muñoa

Konfiantzari buruzko galdera batekin hasi nahi dut gaur: orokorrean, jende gehienarengan konfiantza eduki dezakezula uste al duzu? Edo bestela esanda, orokorrean jende gehienarekin fidatzen al zara? Ziur, galdera bera duela hogei-ta hamar urte egin izan bagenu erantzun ezberdinak jasoko genituzkeen. Eta zergatik diodan hau? Zenbat etxetan edo baserritan ikusten dugu atea irekita? Zenbatek uzten dute

autoko atea giltzapetu gabe? Zenbat pertsona ikusten ditugu autostop egiten? Eta autostopean daudenak hartzen? Zeinek uzten dio sakelakoa kalean telefono eske datorkion ezezagunari?

Irudipena daukat inguruko pertsonekin, hurkoekin, geroz eta konfiantza gutxiago daukagula; badaezpada ere, norbera norberean itxita bizi garela, besteek kalte egin diezaguketelako. Materialki geroz eta gehiago edukitzera pasa garen gizartean, badirudi inorekin ez fidatzea dela arrakasta eta ongizate materialerako bide bakarra. Bizimodu kapitalista, indibidualista eta postmodernoarean zehar-kalte bat

Irudipena daukat inguruko pertsonekin geroz eta konfiantza gutxiago daukagula; norbera norberean itxita bizi garela.

gehiago? Agian bai, baina ez nago hain ziur hori bakarrik ote den!

Hasierako galderara itzuliz, galdera hori egin zuten BBVA Fundazioak aginduta, munduko hainbat herrialdetan. Eta Danimarka bezalako herrialde ustez aurreratueta jendeak zioen oro har besteengan konfiantza baduela; aldiz Turkian edo Txilen, jende gehienak uste zuen ingurukoak, ahal bazuen, kalte egingo ziola. Eta galdera hori Euskal Herrian egingo bagenu, zein litzateke erantzuna?

Ez dakit. Baina ziur nago gure soziedadek edo kooperatibak ez liratekeela existituko duela ez hainbeste urte gure gizartean jendeak elkarrengan konfiantza eduki izan ez bazuen. "Merkatuak" ere konfiantza galdu omen duten egunotan, 50 euro utziko al zenizkidake datorren astean itzuliko dizkizudala hitz emango banizu?



Eneritz Gorrotxategi

Fidatu, fidatu... une, egoera, aldarte, inguru eta sentimenduaren arabera! Garai batean atariak irekita uzten ziren... eta gerora hasi ziren tinbreak edota bideoa duten gailuak atean jartzen, nori ireki behar diozun edo nori ireki nahi diozun erabakitzeke. Ohiturak, gizartearekin batera aldatu dira; familiako kide kopuruak behera egin duen neurrian, etxeak askotan hutsik egoten dira; garai batean apenas gertatzen zen hori. Egun, beste familia eredu batzuk ere badira...

Nire ustez, salbuespenak salbuespen, ezingo ginатеke orain garai bateko eskema berarekin bizi. Hasi pentsatzen: lanbidea, garraioa, ikasketa prozesua, bizimodua orohar... dena aldatu da. Inor bizi al da lehengo bizimodu edo eskema horrekin? Egun jakin batean egin genezake, baina nire ustez, garai bateko bizimoduari begira bakarrik ezin gara

Konfidantza izateko oinarri bat aldamenekoa edo inguruko hori ezagutzean eta errespetatzean datza.

bizi. Formula berriak ekarri dizkigu gizarteak; gizartearen gorpila da garaia aldaratzen dituen eta hor sartu 'beharean' topatzen gara.

Bizimodu honetan ordea, konfiantza gutxiago dago, bai. Baina konfiantza izateko oinarri bat, niretzat behintzat, aldamenekoa edo inguruko hori ezagutzean eta errespetatzean datza; berarekin zer partekatu dezakezun ikusi eta aztertzea alegia. Zure lagun batekin lanera joateko autoa parteka zenezake, pisukidearekin eguneroko bizitzari ekiten diozunean konfiantza sortzen joaten da. Partekatuz gero, errazagoa izango da bizitza, ezta? Formula berriak erabiltzean dago gakoa.

Eta zuri... 50 euro... ez dakit bada... bai, utziko nizkizuke bai; hala ere nire ustez hobe da besteei uzteko aukera izatea, behar izatea baino.

GOIERRITARRA diruz laguntzen duten erakundeak:

Alzaga, Arama,
Itsasondo eta
Ligorretakoko udalak



Goi
Goierriarra aldizkaria

Argitaratzailea:
Goierriko Hedabideak S.L:
Urbialde plaza, 7 - behea
BEASAIN

Posta elektronikoa:
goierritarra@goierrikohitza.info
Telefonoak:
Erredakzioa: 943 16 00 56
Publizitatea: 647 319 775
Harpidetza: 902 820 201

Zuzendaria: Loinaz Agirre
Maketazioa: Mikel Albisu

Inprimaketa: Gertu

ISSN: 1132-0907
Lege gordailua: SS-926/89

GOIERRITARRAK ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística

Joaten gara? / Joango gara?


Maizpide euskaltegia

Haur nahiz gaztetxo askoren artean aspalditxotik asko zabaldu den forma batez hitz egingo dugu gaur: **Joaten gara zinemara?, Etortzen zara nirekin?, Egiten diogu oparixoren bat?, Jolasten zarete gurekin?**

Ez dira inolaz ere egokiak. Izan ere, joaten, etortzen, egiten, jolasten... formek ohitura adierazten dute: **Igandero joaten gara zinemara, egunero etortzen zara nirekin eskolara, Joxeri martxoaren 19an egiten diogu oparia, arratsalde-ro egiten duzue jolas baiekin...**

Nola esan, beraz, baimena, aholkua... eskatu nahi dugunean? Bada, beti esan eta entzun dugun moduan, alegia: **Joango**

Egiten dinagu
ala
egingo dinagu?



gara zinemara?, Etorriko zara nirekin?, Egingo al diogu opariren bat?, Egingo al duzue jolas gurekin?

Beraz, badakizue, zuen ingurukoek, zuen seme-alabek, edo zuk zeuk gaizki erabiltzen baduzu, zuzendu, euskararen onerako izango da eta!

ZUZENDU, BEHAR IZANEZ GERO...

1. Ampo-Ordizia rugby-taldea ikustera joango al gara bihar?
2. Maiz etortzen al dira australiarak Euskal Herrira aizkoran aritzera?
3. Aurrerantzean hamabostero izango dugu bilera.
4. Elkarteko bilera hilero izaten dugu.
5. Hara! Josune Bereziartu eskalatzailea dago taberna horretan. Eskatzen diogu autografo bat?
6. Horrela jokatzeko jarraituz gero, urtero izango ditu arazoak Realak.
7. Idazle horrek beti izaten du tartetxoren bat kazetarien galderei erantzuteko.
8. Hi, neska, ni prest naun. Eiten al diñau?
9. Hitzetik hortzera esaten ditu biraoak Goikoetxea baserriko Antoniok.

OHARRA: Erantzun zuzenak hurrengo GOIERRITARRAN.

ZEGAMA OKINDEGIA

Eskuz egindako ogi naturala

Intxausti eremua, 14G-14H nabeak
☎ 943 80 10 66 **ZEGAMA**

SALMENTA PUNTUAK:

Beasain: Oskarbi, Osina, Natxo dietetika, Ekilore, TPT, Barandi Delicatessen.
Ordizia: Sabino, Munio, Osasun eta Gorosti. **Lazkao:** Lasa, Viana, Ainhoa dietetika, Noemi frutadenda. **Olaberria:** Lurdesen denda. **Ligorreta:** Dorronsoro. **Zegama:** Kooperatiba eta Maria Jesusen denda. **Idiazabal:** Joxan harategia, Eguzki dietetika. **Ormaiztegui:** Inaki Erosle. **Zumarraga:** Rueda frutadenda, Ametsa harategia, Ekilore dietetika. **Urretxui:** Dia, Belarzain. **Legazpi:** Jabi harategia, Izkuntza, Apatxo, Txitxiki, Uriarte-Pinedo.

Kol. zkia.: 764

Nerea Larrea Oyarbide

Aho kirurgia	Artikulazio eta ahoko minak
Inplantologia	Radiologia digital zerbitzua
Periodontzia	Eskaner digitala

Dulce Maria Loinaz, 3 Beasain 943 088 118

11-12 maizpide
euskaltegia - barnetegia

- * Barnetegian hilabeteko ikastaroak. Familia euskaldunetan egoteko aukera.
- * Ordukako ikastaroak. 4. maila. Larunbatetan goi mailako ikastaroak.
- * Autoikaskuntza. C-1 maila on-line
- * Euskara-planak enpresa eta erakundeentzat.

lazkao*

www.maizpide.com · lazkao@maizpide.com · 943 88 92 31

Agur Bizkaia, Kaixo Gipuzkoa!

31. ibilbidea:

Arrigorriaga - Balzola

Udako oporren ondoren, egitasmoari berriro ekin diote mendizaleek. Oraingo honetan, Irailaren 6an, 35 mendizalek, Nerbioi ibaiaren ertzetik abiatuta, Arratiako haranetik zehar ibili ondoren Baltzolako auzoan bukatu zuten.

Ibilbidea eta denborak:

Ibaiaren eskuinetik, industriagune baten albotik, hodi haundi baten ondoko bide txiki bat hartuz eta burdin hesi bat igarota, pistan aurrera jarraituz, mendi lepo batera iritsi ziren. Handik, gainik gain, malda gogorreko bide batean gora eginez, Artanda gailurrera iritsi ziren (554m: 3,5km; 1:15). Bertatik, Bilbo eta eskualde guztia ederki ikusten da. Bide zabal batetik jaitsiz, San Segismundo baselizara heldu ziren (410m; 5km; 1:35). Atsedentokia da eta erromeri asko ospatzen omen dira. Pinudian barrena, hegoalderako joeran, arrasto zuri-horiei jarraituz, lepo batera jaitsi ondoren, seinale batek Mandoia izena adierazten du. Idatziak seinalatutako bidetik gorantz jo zuten, ekialdera, pago eta haritz gazteak landaturik dauden lurretan barrena, alanbre-hesiaren bes-

Idubaltza tontorrean atsedean hartzen.



taldean dagoen Mandoiako gailurreraino (634m; 11,7km; 2:00). Handik, Arratia eta Igorre aldea ikus daiteke, atzerago Aramotz mendiak. Malda gogorrean behera jaitsiz, pinudi eta pista batetik Arantzabaltzeta lepora jaisteko asmoa zuten, baina nahi baino gehiago desbideratu ziren. Arrazoi honengatik,

Arantzazu auzora heldu ziren (75m; 17km; 4:50). Geroxeago, Dima herritik (10m; 22 km; 5:50), Bargondia auzoraino heldu ziren (290m; 25km; 6:30). Handik, gorantz jarraitu zuten, Baltzola auzoraino (450m; 26,5km; 6:50).

Gorabehera metatuak: igoeran: 1.100m; jaitsieran: 800m.

32. ibilbidea:

Olabarria – Kanpazar

Eguerdiarte eguraldi bikainarekin eta ondoren hodeitsuarekin, besteak beste, Aramotz, Eskuagatx, Mugarra, Gorbeia, Itxina, Ailluitz eta Anboto mendiak eskaintzen dituzten ikuspegi ederrez gozatuz, irailaren 13an, 37 mendizalek, mendebaldetik ekialderako norabidean, Bizkaiko, Arabako eta Gipuzkoako mugetako mendi bizkarretan zehar ibili ondoren, Gipuzkoako lurretan sartu ziren.

Ibilbide honetan, tradizioak dioenez, izaki mitologikoak bizi omen ziren lekue-tatik igaro ziren, hasi Jentilzubi arkuaren azpitik eta lamiak eta Sugoi bizi omen ziren Baltzolako leizeetatik. Geroago, euskal izaki mitologiko garrantzitsuenak Anboton egoitza nagusia omen zuen Mari jainkosa edo damaren lurraldeak zeharkatu zituzten.

Ibilbidea eta denborak:

Olabarria auzoa (260m), Baltzola (450m; 2,4km; 40 min.), Olarretako lepoa (645m; 5,5km; 1:15), Ollomen-



Urkiolatik anbotorako bidean, tradizioak dioenez, izaki mitologikoak bizi omen ziren lekue-tatik igaro ziren

diko lepoa (670m; 6km; 1:25), Eskuagatx gailurra (890m; 7km; 1:45), Artzate (700m; 9,5km; 2:25), Iturriozko lepoa (735m; 9,7km; 2:35), Saibigain gailurra (942m; 11,4km; 3:05), Urkiola (715m; 13km; 3:40), Urkiolagirre gailurra (1.011m; 3:25), Asuntzako zelaia

(880m; 16,5km; 3:50), Zabalandi (900m; 19,4km; 4:35), Amillondoko lepoa (730m; 21,3km; 6:00), Besaide (550 m; 25,7km; 6:50), Kanpazar (465m; 31km; 7:55).

Gorabehera metatuak: igoeran: 1.330 m; jaitsieran: 1.125 m.



Igartubeiti baserri museoa: euskal baserriaren historia bizia

Hamar urte dira, ia 10 urteko zaharberritze lanen ondoren, Ezkio-Itsasoko Igartubeiti baserria museo bihurtu zela. Euskal baserriaren historiaren museoa da; euskal baserriaren mendeetako historiaren bilakaeraren museo. Gaur egun garena hobeto ulertzeko museoa. 2007an ireki zen Interpretazio Zentroak ere horretan laguntzen du. Kizkitza Ugarteburu urretxuarra eta Zuhaitz Akizu itsasoa dira museoaren gidari lanak egiten dituztenak.

Hiru gune edo baliabide ditu Igartubeiti baserri museoak, euskal baserriaren historia, bilakaera eta bertan bizi izan ziren biztanleen eguneroko bizimodura hurbiltzeko: baserria bera, interpretazio zentroa eta baratze ekologikoa.

XVI. mende erdialdean eraikita eta XVII. mende hasieran handitu zuten Igartubeiti baserria. 90eko hamarkadan Gipuzkoako Foru Aldundiak eskuratu eta zaharberritu egin zuen. Euskal baserriaren Urrezko Aroaren adibide nagusia da.

Interpretazio zentroko erakusketa iraunkorraren bitartez, Igartubeiti baserriko familia eta auzotarren ahotsen bitartez, jakin dezakegu nola handitu eta aldatu ziren antzinako baserriak, nola bizi ziren baserritarrak eta nola egiten zuten lana, nolako harremanak zituzten beraien artean, zertan sinesten zuten, zer ekoizten zuten, zer jaten zuten, nola dibertitzen ziren eta zergatik sufritzen zuten.

Kanpoaldean, baserriaren aurrealdean, baratze ekologikoa dago. Igartubeitiko baratza urtaroren arabera aldatzen doa, naturaren erritmoei jarraiki eta beti ere naturaren-izakia kaltegarriak izan daitezkeen produktu kimikorik erabili gabe lantzen dute. Ximaurra eta material organikoak konposatzen dituzte ongarri bezala erabiltzeko, ilargiari begiratu lanerako garairik egokiena den ikusteko. Barazkiak, zuhaixkak, fruitarbolak eta perretxiak ere hazten dituzte, "modu pedagogikoan haurrek zein helduek ikas dezaten jaten ditugun naturako fruituak nondik datozen".



Kizkitza Ugarteburu eta Zuhaitz Akizu: "Piezaz pieza desmuntatu, tratatu eta muntatu zuten baserri guztia"

10 urte bete ditu Igartubeiti baserri museoak. Interpretazio zentroa 2007an ireki zen. Dena den, urte askoz lehenago hasi ziren zaharberritze lanean.

Kizkitza Ugarteburu: 90eko hamarkadan Gipuzkoako Foru Aldundiak erosi zuen baserria. Baserri guztia piezaz pieza desmuntatu zuten. Pieza guztiak garbitu eta dena berriro eraiki zuten. 2001ean inauguratu zen. Ez ziren 10 urte segidan izan, diru ezagatik, urte batzutan lanak aurreratu gabe egon ziren.

Zuhaitz Akizu: Berezia izan zen, nola desmuntatu zuten baserri guztia; arkeologikoki pieza bakoitza bere zenbakiarekin eskabazio bat balitz bezala lurrazpian, baina lur gainean. Lan hori lehenengo aldiz egin da baserri batean. Desmuntatu, tratamendua eta muntatu.

Zaharberritzen ari zirela indusketak ere egin zituzten.

Ugarteburu: Sukaldearen azpian etxola moduko bat aurkitu zuten. Uste izan zuten, XVI. mendean, baserria sortu aurretik, horrelako etxolatan bizi zirela eta XVI. mendean sortu zirela gaur egun ezagutzen ditugun baserriak. Beraientzat ere ikerketa suposatu zuen. Lehenengo aldia zen baserri bat ikertzen zela. XVI.-XVII. mendeetan baserriak nolakoak ziren erakutsi nahi zen, batez ere, dolare baserriak nolakoak ziren. Alberto Santana historialariak baserriaren eboluzioa kontatzeko, Errusiako panpinekin, matrioskarekin, konparatzen du: etxola nola sortzen den, gero XVI. mendean dolarera joaten direla bizitzera (sagardoa egiteko izugarritzko makina daukate eta bizitzeko leku txikia), gero XVII. mendean artoa iristen da eta behar zuten espazio handiagoa behar zuten, baserria zabaltzen dute. Santanak Igartubeiti laburbiltzen du, sagardoaren eta artoaren baserri bezala.

Sagardoaren astea, urriaren 3tik 14ra



Urriak 3, astelehena:

11:00etan: Inaugurazioa. Gipuzkoako Foru Aldundiaren Sariak X. Sagardo lehiaketako irabazleei diplomak banatuko zaizkie.

11:30ean: Zanpaketa eta antzezpena.

Urriak 4, 5, 6, 7, 10, 11, 13 eta 14:

11:30ean: Zanpaketak, Hego Euskal Herriko ikastetxeei, jubilatuei eta euskaltegiei zuzenduta.

Urriak 8, 9, eta 12:

12:00etan eta 17:00etan: Zanpaketa eta kirikoketa.

11:30etik 13:00etara eta 16:30etik 18:30era: Antzezpenak.

Ekintza ugari antolatzen dituzte urtean zehar Igartubeiti baserri museoan. Baserri eguna, musika kontzertuak, bertsoak... Jende gehien biltzen duen ekitaldia, sagardoaren astea izaten da. Urriaren 3tik 14ra izango da aurten. Yartu elkartearekin batera antolatzen dute Igartubeitikoek sagardoaren astea. Sagarraren zanpaketak egunero egingo dituzte goizeko 11,30etan. Asteburuan eta Pilarika egunean, urriaren 12an, bi saio egingo dituzte. Asteburuari lotuta, Arizkungo 'Jo ala jo' elkartekoek kirikoketak egingo dituzte. Kirikoketa, pisoiekin, sagarra txikitzeko mazoekin egiten den txalapartaren aldaera da. Aktore lanetan ere arituko dira Yartukoak. Ezkio-Itsasoko eta Yartu elkarteko kide diren bost bizilagunek, XVII. mende hasieran baserrian bizi izandako Kortabarria familia antzeztuko dute. XVI. mende bukaerako eta XVII. mende hasierako janzkerekin jantzita, baserria erakutsiko diete bisitariei eta beraien zereginei buruz hitz egingo diete.

Bi lehiaketa

Sagardoaren astearen barruan, bi lehiaketa antolatu dituzte. Batetik, argazki lehiaketa eta bestetik, sagarrarekin edo sagardoarekin egindako errezetan lehiaketa. Errezetarik originalena sarituko dute astero. Ezkio-Itsasoko Labeko jatetxean, 2 pertsonentzako sagardotegi menua izango da saria. Lehiaketan parte hartu nahi duenak, errezeta igartubeiti@gipuzkoa.net helbidera bidali behar da, norberaren datu pertsonalekin. Errezetak bidaltzeko epea urriaren 16ran bukatuko da.

Sagar erakusketa

Egun horietan, Ezkio-Itsason bildutako sagar bariedadeak ikusgai izango dira. Yartu elkartek Ezkio-Itsasoko udalaren laguntzaz antolatutako erakusketa baserriko ezkaratzean dago kokatua.

'Areago. Soinuetan murgilduz ibili'

10. urteurrenaren harira, 'Areago. Soinuetan murgilduz ibili' egitasmoa martxan jarriko dute. "Geolokalizazioarekin, Igartubeiti Baserri Museoko ondare baliabideekin erlazionatutako teknologia berrien erabilpena biltzen duen egitasmo berritzailea da, ondare horri balioa emanez. 'Areagok' audio-gida sistema proposatzen du, GPS teknologiaz hornitutako smartphone edo laugarren belaunaldiko telefonoak erabiliz gune irekietan esploratzeko aukera eskainiz. Soinu ibilbidearen, kontakizun esperientzialaren eta ibilbide turistikoarekin artean kokatzen den esperientzia paregabe honek, baserriaren inguruarekiko interakzioaren bitartez, materiala den eta materiala ez den ondarearekiko hurbilpena ahalbideratuko du", diote Ugarteburuk eta Akizuk.

Musika kontzertua

Zumarragako Antioko musikaldiaren barruan, Elena Barbé sopranoa eta Gerardo Rifon pianista izango dira urriaren 1ean, arratsaldeko 6etan, Igartubeitiko dolarean.



Igartubeiti: sagardoaren eta artoaren baserria

Igartubeiti baserriak hainbeste urtean zutik iraun badu, besteak beste, garai berrietara egokitzen jakin izan duelako izan da. Igartubeitiren historia, Euskal Herriko baserrien historia da. Indusketa lanek, euskal baserriaren bilakaera ezagutzen lagundu dute. Igartubeiti baserri museora egindako bisitarekin euskal baserriaren historia murgildu gara. "Igartubeiti baserriak beste edozeinek baino hobeki islatzen du euskal baserriaren Urrezko Aroa esan diezaioketuna. Baserria XVII. mendearen hasieran (1630), bere garairik gorenean, zabaldu eta eraberritu egin zen, bizimodu eta lan mota berrietara egokitzeko. Zorionez, esku-hartze honek ia ez zuen ukitu jatorrizko egitura eta gaur egun ere garai bakoitzeko eraikitze moduak eta espazioen erabileran izan ziren aldaketak ikusi ahal izateko aukera ematen digu".

Etxola sakabanatutik hiribildura

IX. mendean sortu ziren nekazarien lehen etxeak Euskal Herrian. Zurezko etxolak ziren, harrizko eliza txiki baten inguruan. Geroago, milagarren urtea baino lehenxeago sortu ziren lehenengo baserri sakabanatuak,

Igartubeitiko etxolak bezalakoak.


Gaur egun sukaldea dagoen tokian, etxola baten aztarnak aurkitu zituzten zaharberitze lanetan ari zirela. Erdi Aroko etxola baten aztarnak ziren. Arkeologoek ezin izan dute zehaztu noizkoa den.

Erdi Aroko azken mendeetan gerren ondorioz, izua ekarri zuen euskal baserrietara eta hiribilduen babesa bilatu zuten baserritarrek. Adibidez, 1383an Urretxuko Villa Real sortu zen.

Dolarea

Bitartean Igartubeiti zaharberritu egin zuten. Handiagotu eta sendotu egin zuten, baina lekuz aldatu gabe. Beti leku berean, eraldatuz joan zen mendeetan zehar. Lehenengo euskal baserriak XV. mendearen azken urteetan sortu ziren. Erdi Aroko etxola zaharrak zeuden leku berean eta haien izena aldatu gabe.

"Gipuzkoako lehen baserriak arotz lan konplexuak dira. Barruan, sukaldea, logelak, ikuilua, eta ganbara edo mandioa dituzte. Baina guztietan, dolarea zen eraikina- ren bihotza. Sagardoa egiteko erabiltzen zutena. Dolarearen haritzeko habeek mugatzen zuten etxearen garaiera eta



*XVI. mendean, 1540an sortu zen Igartubeiti baserria.
XVII. mendean, 1620an, berriz, baserria handitu zuten.*

zabalera. Obra maisu adituek eraiki zituzten".

Sagardoak garrantzia handia izan zuen XVI. mendearen azken urteetan. Lehen baserri guztietan zegoen horrelako dolare bat, dolarearen inguruan eratu ziren lehenengo baserriak. Ia bi mila litro sagardo egiten zen Igartubeitiko dolarean.

Artoa

XVI. mendearen bukareran Amerikatik artoa ekarri zutenean erabateko aldaketa eragin zuen Igartubeitin. "Artoa aletu eta ondo lehortu behar da, hilabete batez lehortzen eduki behar da, eta lehortzeko toki bat behar da, lizundu egiten dira bestela, eta horretarako leku egoki behar da. Honela aurreko etxeak txikiak zirenez, etxearen zati berria eraiki behar izan zen.

Aurreko aldeari atxikita, zurezko ganbara eraiki zuten eta aterpe luze irekia gelditu zen azpian. Aldi berean, handiago egin zituzten logelak, eta ikuilua. Artoari esker, baserria behin betiko bukatuta gelditu zen. 1630. urte inguruan, Igartubeiti izan zen artoa ereiteko egokitu zen lehenengo baserrietariko bat, artoa bilakatu baitzen euskal nekazarien elikagai nagusia".

Baserri garrantzitsua

Aldaketa guztion lekuko dira Igartubeitiko horma eta egur zaharrak. Igartubeiti baserriak jatorrizko zurezko egitura oso ongi kontserbaturik dauka eta hau dela-eta, sagardorako dolarea ere kontuan hartuta, Euskal Herriko baserriarik interesgarrienetako bat dela esan dezakegu, baita ondareko funtsezko elementuetako bat.

Beti leku berean, eraldatuz joan zen mendeetan zehar. Lehenengo euskal baserriak XV. mendearen azken urteetan sortu ziren.



Duela lau urteko finala, Ilunben. Tartearen ziren Aitor Sarriegi eta Iker Zubeldia.

Iñaki Apalategi, Asier Sasieta,
Iban Urdangarin, Gorka Maiz, Aitor Sarriegi,
Iker Zubeldia eta Joxe Munduate

Zazpi goierritar Gipuzkoako Bertsolari txapelketako finalera iristeko lehian

Gipuzkoako Bertsolari txapelketak berriro ekin dio bideari. Udaberrian kanporaketa saioak jokatu eta lehenengo galbahea pasatu ondoren, Gipuzkoako 42 bertsolariren artean dago jokoan txapela.

Final zortzirenak jokatuko dira urriaren 9ra bitartean.

Abenduaren 18an jokatuko da finala, Donostiako Ilunben.



Maiatzan hasi zen Gipuzkoako Bertsolari txapelketaren lehen fasea. 60 bertsolari aritu ziren bertan. Taldea txikituz ari da pixkanaka eta bigarren fasean 42 bertsolari arituko dira taula gainean. Abenduaren 18. eguna, Donostiako Ilunbe dute amets. Ilunbeko geltokia harrapatu nahian, 7 bertsolari ari dira.

Final-zortzirenak

Goierriko bertsolari dagokie-nez, Endika Igartzabal gabiriarrak, Julen Agirre eta Ainhoa Mujika beasaindarrek, eta Odei Lopez legorretarrak, lehenengo fasea ez zuten pasatzerik izan. Zorte hobea izan zuten Iñaki Apalategi beasaindarrek, Asier Sasieta itsasoarrak, Iban Urdangarin ataundarrak eta Gorka Maiz gabiriarrak, final zortzireneta-rako txartela lortu baitzuten.

Talde honi, beste hiru bertsolari ere gehitu behar zaizkio: duela lau urteko txapelketan finalaurrekoetan parte hartu zuen Joxe Munduate ataundarra, eta finalean parte hartu zuten Aitor Sarriegi beasaindarra eta Iker Zubeldia zegamarra.

Goierrin bi saio

Txapelketaren bigarren fasa honetan, final zortzirenak pasa den asteburuan hasi ziren. Asteburu honetan, igandean, irailaren 25ean, Lazkaon izango da final zortzireneta laugarren saioa. Azeria kultugunean izango da saioa, arratsaldeko 5,30etan. Unai Muñoz, Nahikari Gabilondo, Beñat Lizaso, Beñat Iguaran, Iban Urdan-

garin eta Adur Gorostidi arituko dira.

Beste saio bat ere izango da Goierrin: urriaren 30ean, Idiazabalen, Igarondo pilota-lekuan.

Gai jartzaileak eta epaileak

Bertsolariez gain, izango da beste goierritarrik Gipuzkoako txapelketan, beste lan batzuetan. Epaile taldean Martin Aramendi eta Iban Sukia ataundarrak arituko dira bertsolarien jarduna neurtzen. Gaiak jartzen berriz, Inazio Usarralde eta Irati Arrieta lazkaotarrak, eta Beasainen bizi den Imanol Arabaolaza.

Sarrerak interneten

Saioetara joateko txartelak internet bidez erosteko aukera izango da gpuntua.com webgunean, saio bakoitza jokatuko den astean zehar; Internetez saldu gabe gelditu diren sarrerak bakarrik salduko dira leihatilan. Beraz, internet bidez denak salduz gero, leihatilan ez da sarrerarik erosteko aukerarik izango.

2007ko finala

Duela lau urteko Donostiako Ilunbe zezen plazako finalean bi goierritar izan ziren, Aitor Sarriegi eta Iker Zubeldia. Memoria freskatze-ko, hone hemen duela lau urte, Gipuzkoako Bertsolari txapelketa jokatu zuen zortzikotea, lehenengotik zortzigarrena: Aitor Mendiluze, Beñat Gaztelumendi, Jon Martin, Jon Maia, Jexux Mari Irazu, Aitor Sarriegi, Unai Agirre eta Iker Zubeldia.



Gipuzkoako Bertsolari txapelketa fasez fase

Final zortzirenak

- ✓ Irailaren 17tik urriaren 9ra.
- ✓ 42 bertsolari (32 bertsolari lehen fasean sailkatuak eta 2007ko finalerdietan izan ziren 10 bertsolari).
- ✓ Zazpi saio izango dira eta 24 bertsolari pasatuko dira final laurdenetara.
- ✓ Goierriko bertsolariak: Iñaki Apalategi, Gorka Maiz, Asier Sasieta, Iban Urdangarin eta Joxe Munduate.

Final laurdenak

- ✓ Urriaren 22tik azaroaren 6ra.
- ✓ 30 bertsolari (final zortzireneta pasatutako 24 bertsolari eta 2007an finala jokatu zuten 6 bertsolari).
- ✓ Bost saio izango dira eta 18 pasatuko dira finalaurrekoetara.
- ✓ Goierriko bertsolariak: Aitor Sarriegi eta Iker Zubeldia (gehi, final zortzireneta aurrera egiten dutenak).

Finalaurrekoak

- ✓ Azaroaren 26tik abenduaren 4ra.
- ✓ 18 bertsolari.
- ✓ Hiru saio.

Finala

- ✓ Abenduaren 18an, Donostiako Ilunbe zezen-plazan.
- ✓ 8 bertsolari.

Goierriko zazpikotea



Aitor Sarriegi

Final laurdenetako fasean, urriaren 29an, Hondarribian, hasiko du txapelketa.




Iker Zubeldia

Final laurdenetako fasean, azaroaren 6an, Azpeitian, hasiko du txapelketa.



Joxe Munduate

Urriaren 1ean, Elgoibarren, Jokin Uranga, Unai Gaztelumendi, Oier Aizpurua, Mikel Arrillaga eta Egoitz Eizagirrerekin arituko da.



Gorka Maiz

Joan zen asteburuan, irailaren 18an izan zuen final zortzirenetako saioa. 435 puntu eskuratu zituen.




Iban Urdangarin

Irailaren 25ean, Lazkaoko Areria kulturgunean, Unai Muñoa, Nahikari Gabilondo, Beñat Lizaso, Beñat Iguaran eta Adur Gorostirekin arituko da.




Iñaki Apalategi

Urriaren 8an, Lasarte-Orian, Uxue Alberdi, Ainhoa Agirreazaldegia, Amaia Iturriotz, Oihana Iguaran eta Andoni Otamendirekin arituko da.



Asier Sasieta

Urriaren 9an, Irunen, Iñaki Zelaia, Alaia Martin, Haritz Casabal, Urko Egaña eta Manex Mujikarekin arituko da.



LAN BERTIKALAK S.L.
San Bartolomé, 12 ORDIZIA

Tel.: 605 712 018
Tel.: 943 162 427

Web: www.lanbertikalak.es
Mail: info@lanbertikalak.es

fatxadak, teilatuak,
terrazak, kanaloaiak,
bajanteak...



SILVIA MIRAS CASASAYAS
ODONTÓLOGA

KOL Zka: 649 RPS: 223/07



TEL./FAX: 943 88 92 87
SAN INAZIO KALEA, 2
20200 BEASAIN - (GIPUZKOA)



Antzar Korrikalariak: 10 urte korrika eta korrika zaletasuna bultzatzen

K irola, korrika, osasuna eta familia uztartzen ditu Lazkaoko Antzar Korrikalariak taldeak. Kirol osasuntsuaren aldarrikapena egiten du eta horrekin batera, korrika zaletasuna txikienean artean zabaltzen ari dira lazkaotarrak.

2002. urteko Josetxo Imaz memorialean parte hartu zuen lehenengo aldiz talde bezala, Lazkaoko Antzar Korrikalariak taldeak. Dozena bat korrikalariko taldea izate-tik, 50etik gora izatea lortu dute 10 urtetan. Duela 10 urte ez bezala, gazteak, haurrak eta emakumezkoak ere gertu-ratu dira taldera.

Bakarkako kirol izatetik talde kirol bihurtzea lortu dute Lazkaon. "Duela 10 urte bakoitza bere aldetik ibiltzen zen korrika. Bakoitza bere aldetik joaten zen karreretera. Hizketan hasi eta entrenatze-ko eta karreretera joateko elkartzen hasi ginen. Hortik sortu genuen taldea. Izena jarri taldeari, kamisetak erosi eta aurrera", dio Iñaki Belamendiak, taldeko kideak.

Hasiera hartan, "10-12 izango ginen. Baina berehala zabaldu zen taldea. 20tik gora berehala elkartu ginen", gaineratu du Mikel Zabalak. Gaur egun, 53 dira taldean. "Emazteak eta umeak ere badaude taldean. Korrikako taldea baino gehiago, lagun taldea da. Taldearen filosofia da, kirola egitea, ez kirol lehiakorra, osasuntsua bai-zik".

Gaur egun gero eta jende gehiago ibiltzen da korrika eta hori nabaritzen dute laz-kaotarrek. "Garai batean beti



Babesle fidela

Hamar urteotan babesle bera izan du Antzar Korrikalariak taldeak: Lazkaoko Errotaundi okinde-gia. Kolore ezberdinetako kamisetak erabili izan dituzte, baina babeslearen izenik ez da aldatu. Hori bai, Belamendiak eta Zabalak esan digutenez, materiala asko aldatu da, asko garatu da kirola egiteko materiala: "duela 10 urteko kamisetak, izerdiz busti-busti eginda bukatzen zuen. Gaur egunekoak, berehala lehortzen da".

berdinak ibiltzen ginen korrika, "eroak". Gaur egun, emakume asko ikusten da korrika, gazteak ere bai. Adineko jendea berriz hasi da. Taldea finkatu egin da

eta jende gaztea eta berria sartzen ari da".

Emakumezkoak gero eta gehiago

Emakumezkoen kasua azpi-marratu nahi izan dute lazka-otarrek. "Lehen, emakumeen kasuan, lotsagatik ez ziren ateratzen. Ikusten duzu hori aldatzen dela. Goierriin bada emakume talde bat, egunero goizeko 6etan ateratzen dena korrika egitera. Hori lehen, pentsaezina zen. Jendeari txip-a aldatzen ari zaio".

Korrika zentzu ezberdine-an ulertzen eta hartzen dute-nak biltzen dira taldean. "Taldean denetik dago: korri-ka oso ondo egiten dutenak eta oso lasai dabilzanak. Bakoitzak ahal duena entre-natzen du. Filosofia inoiz ez da konpetitiboa izan. Denoi gustatzen zaigu korrika egi-tea. Zerbait egiten ari gara, gainera familia ere sartuta dago. Ondo pasatzea da hel-burua", diote Belamendiak

eta Zabalak.

Antzar Korrikalariak beza-lako taldeek, taldean korrika egiteko beste aukera bat sortu dute. "Duela 10 urte federa-tzeko aukera bakarrik zego-en; gaur egun, taldean aritze-ko aukerak badaude", diote Antzar Korrikalariak taldeko-ek.

Eredugarria

Antzar Korrikalariak taldea eredugarria izan da inguruko herrientzat. "Gu sortu aurretik zegoen korrika talde bakarra, Ordiziako 'Jatorrak' izango zen. Desagertu egin zen talde bezala eta gero gu sortu ginen. Orain, Ordizian 'Boltas' eta Beasainen 'Bealak' daude. Ikusten da, ereduak balio duela. Familia ere elkartu egiten da, beste ekintza batzuk egiten dira...".

Umeentzeko krosa

Haurrak korrikara erakarri nahi dituzte Antzar Korrikalariak taldekoek eta

Josetxo Imaz memorialela Lazkaon hasi eta bukatuko da

Antzar Korrikalariak taldearen 10. urteurrenaren aitzakian, Josetxo Imaz memorialearen XI. edizioa, Lazkaon hasi eta bukatuko da irailaren 25ean. "Guretzat festa txiki bat egitea nahi genuen. Duela lau urte, edizio batean ere Lazkaon hasi eta bukatu zen, Altamira obratan zegoelako".

Goizeko 10etan hasiko da haurrentzako proba; helduena berriz, 11etan. Ordiziatik eta Beasaindik barrena 10 km egin ondoren, Lazkaoko plazan bukatuko da proba.

Bezperan

Bezperan, irailaren 24an, taldekideentzat "festatxoa" egingo dute. "Jesus España atleta etorriko da. Europako txapelduna izandakoa da bera, madrildarra. Korrika entrenamendu bat egin eta gero bazkaria egingo dugu".

“European maratoiak festa bezala hartzen dituzte”



Antzar Korrikalarien 'familiaren' argazkia, Berlingo maratoian.

Korrikaren aitzakian, Europa ezagutzen ari da Antzar Korrikalariak taldeko hainbat korrikalari. Europako hainbat hiriburutako maratoietan parte hartu izan dute. Lehenengoz, 2005ean Parisko maratoian hartu zuten parte. Bartzelona, Praga, London, Berlin, Erroma... ere zapaldu dituzte. Harrezkero, Parisen ere izan dira beste behin. Asteburu pasa ederrak egin dituzte, familia eta lagun giroan.

Askotarako eman izan diete irtenaldi horiek: “Karrera horietan ikusten duzu jende bat lehiatzen ari dela baina gehienak, bukatzera doazela, denborari begiratu ere egin gabe. Bukatu eta egun polita pasatu”, dio Mikel Zabalak. “Frantzia, Alemanian, Italian egon gara eta ikusten duzu korrika festa bat bezala hartzen dutela. Jendeak kirola osasunagatik egiten du. Hemen kirola izan da, eta oraindik ere hala

da, zerbait lehiakorra, konpotetiboa. 10 urteko epe honetan ikusten da gero eta jende gehiago ari dela korrika egiten. Josetxo Imazek asko lagundu du horretan. Nik uste dut jendea filosofia horretan sartzen hasi dela; kirola kultura bezala, ez konpetizio bezala. Ordiziako San Silbestrea antzeko zerbait da; festa bat da”.

Erlojua etxean

Europako filosofia ekarri nahi dute gurera. “Behobia egin duzula esan eta jendeak egiten duen lehenengo galdera, ‘zenbatean egin duzu?’ da. Bukatu egin dut eta kitto, hori da garrantzitsuen. Parisen, Erroman eta horietan, bukatzeagatik zoriontzen zaituzte. Kamisetan finisher hitza jartzen du”, diote Belamendiak eta Zabalak.

urtero bi proba antolatzen dituzte. Bata, herriko jaietan, herriko haurrentzat; eta abenduan, Gipuzkoa mailako proba, Ordiziako Txindoki Atletismo taldearen laguntzaz. “Haurrentzat ez dago karrera asko; hemen inguruan, bakarra izango da. Gero eta ume gehiago hasten da korrika. San Benito ere oso lan polita

egiten ari da. Umeak ilusioarekin ikustea polita da. Iazko abenduko proban, eskolarteko proban, partaide gehien zituen taldea, San Benitokoa zen”, azpimarratu dute Belamendiak eta Zabalak. Haurren proba horri, Eñaut Aldanondo memoriale izena jarri diote, ezbeharrez hil zen taldekidearen omenetan.

“Behobia egin duzula esan eta jendeak egiten duen lehenengo galdera, ‘zenbatean egin duzu?’ da. European bukatzeagatik zoriontzen zaituzte”.



I. Euskal Herriko mendi duatloi zirkuituko bigarren proba Arriaranen jokatu da urriaren 1ean

Hirugarren urtez antolatu dute arriarandarrek mendi duatloia. Aurten ordea, berrikuntzekin dator: I. Euskal Herriko mendi duatloiaren zirkuituko proba izango baita. Zortzi proba izango ditu Hego Euskal Herri mailan osatu den zirkuituak. Era honetan, mendi duatloia indartu eta herritartu nahi dute.

Urriko lehenengo larunbatean izaten da Beasaingo Arriaran auzoko mendi duatloia. 6,8 kilometro korrika eta 14 kilometro mendiko bizikletan egiten dituzte kirolariek, arriarandarrek auzolanean prestatutako ibilbidean.

Orain arteko bi edizioetan, Gipuzkoako eta Euskadiko txapelketak jokatu dira proba horretan. Dena den, antolatzaileek ez zuten esperientzia onik eduki antolaketa modu honekin. “Aurreko bi edizioak federazioarekin batera antolatu ditugu. Lehenengo edizioa, Nafarroan federatuta zegoen gipuzkoar batek irabazi zuen baina ez zioten saririk eman, ez zegoe-lako Gipuzkoan federatuta. Bigarren urtean, nafar batek irabazi zuen eta hari ere ez zioten eman, nafarra zelako. Bigarrena, gipuzkoarra izan zen, baina federatu gabea eta hari ere ez zioten saririk eman. Nahiko erreta geunden gai horrekin”, argitu du Aitor Mendizabalek, Arriarango Intxaurpe Elkarteko Kirol batzordeko kideak.

Bi probetan izan ziren “arazo” horiek abiapuntu hartuta, “Ibarrako taldearekin elkartu ginen, beraiek ere mendi duatloi lasterketa bat antolatu nahi zutela eta. Federazioarekin zein arazo genituen azaldu genien. Gainerako herrietakoei ere azaldu genien egoera eta proposamen bat egin genuen Euskal Herri mailako probak antolatzeko, eta federatua izatea ez zedila txapela janzteko baldintza izan. Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako zortzi elkarte bat egin dute proposamenarekin. Euskal Herria Kirola eta Esait erakundeek ere bat egin dute”.

Proposamen irekia da eta “ateak irekita dauzka gure filosofia onartzen duen edonork”.

Proba gehiago

Zortzi probako zirkuitua osatzea lortu dute. Lau Gipuzkoan izango dira, bi Bizkaian, eta bana Araban eta Nafarroan. Gehienak, proba berriak dira. “Egitasmo hone-



Zortzi proba

Irailaren 24tik azaroaren 27ra bitartean osatuko da mendi duatloi zirkuitua, Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroako zortzi herritan.

- ✓ Irailaren 24an, Ibarra (Gipuzkoa).
- ✓ Urriaren 1ean, Arriaranen.
- ✓ Urriaren 8an, Zubietan (Gipuzkoa), Euskal Herriko txapelketa.
- ✓ Urriaren 22an, Zilbeitin (Nafarroa).
- ✓ Urriaren 30ean, Zallan (Bizkaia).
- ✓ Azaroaren 6an, Langraitzen (Araba).
- ✓ Azaroaren 20an, Amasan (Gipuzkoa).
- ✓ Azaroaren 27an, Mallabian (Bizkaia).

kin mendi duatloi proba gehiago sortzea lortu dugu, azken batean, mendi duatloia indartu nahi baitugu. Mendi duatloia minimotan dago. Hau ondo ateratzen bazaigu, aurrera egingo du. Ez da helburua eliteko kirolariek baka- rrik parte hartzea. Batez ere, kirol hau probatzera eta eza- gutzera jendea erakarri nahi dugu”, azpimarratu du Mendizabalek.

Puntuazioa

Batez ere, probak herrikoiak izatea nahi dute antolatzaile- ek. “Eliteko jendea etorriko da, baina batez ere, mendiko bizikletan ibiltzen direnak animatu nahi ditugu proba- tzera. Jendeak gustura hartu du, ilusioarekin hartu du”.

Filosofia horren adibidea da proba bakoitza bukatzea- gatik kirolariak puntuak jaso- ko dituela eta proba guztiak bukatzen dituztenak saritu nahi dituztela. “Proba bakoit- zak puntuazio ezberdina izango du, kilometro kopu- ruaren eta gogortasunaren arabera. Arriarango kasuan adibidez, gizonezko eta ema- kumezko irabazleek 45na puntu jasoko dituzte; bigarre- nek 36na, 3.ek 28na, 4.ek 22na... eta hamargarrenak 6na puntu. Gainerakoek, bukatzen duten guztiek, 5na puntu pilatuko dituzte. Zirkuituko txapelduna pun- tuaziorik altuena duena izan- go da”.

Euskal Herriko txapela

Zirkuituaren sistemaz gain, Euskal Herriko txapela ere jokatu da proba bakarrera. Urriaren 8an izango da, Zubietan.

Aurten, Ipar Euskal Herria kanpoan utzi behar izan dute, baina aurrera begira Ipar Euskal Herrian probaren bat ere egin nahi dute. Aseguruaren kontua da kon- pondu beharreko arazoa. “Aseguru arazoak daude. Hemengo aseguruak ez baitu Iparralderako balio. Hurrengo urterako utzi dugu gai hori baina hangoekin ere harre- manetan jartzea nahi dugu”, dio arriarandarrak.



Arriarango proba

Urriaren 1ean jokatu da Arriarango mendi duatloi proba. Arratsaldeko 3etan umeentzako proba izango da eta 4etan hasiko da helduen proba. Orain arteko proba hiru zatitan bana- tzen zen: 6 km korrika, 20 km bizikletan eta 3 km korrika. Aurten dena den, aldaketak izan- go dira eta kilometro gutxiago egin beharko dituzte: 6 kilometro korrika eta 12 kilometro bizi- kletan. Aitor Mendizabalek azaldu digu aldaketa horren zergatia: “AHTren obrak direla eta Mandubiako bidea itxita dago eta Arriarango bidetik pasatzen da trafiko guztia eta ez digute baimenik eman zirkuitu zaharrean ibiltzeko, errepidea gurutzatzen dugulako. Behin-behine- ko ibilbide bat prestatu dugu, 6 km-ko zirkuitua da. Ibilbide berrian beraz, kilometro gutxia- go egin beharko dituzte: korrika itzuli bat, 6 km eta bizikletan bi itzuli, 12 km”.

Irailaren 26an eman daiteke izena mendiduatloia.com webgunean. Sariak, opariak, zoz- ketak... izango dira partehartzaileentzat eta irabazleentzat. “Meriendatxoa ere bai. Giro poli- ta sortzen da”, gaineratu du arriarandarrak.

Auzolana oinarri

Arriarango Intxaurpe Kultur Elkartek eta I. Euskal Herriko mendi duatloi zirkuituak antolatu- tako proba da Arriarangoa. Trigo Triatloi Taldeak ere antolakuntzan laguntzen du. Dena den, auzolana da probaren oinarria, arriarandarrak auzolanean prestatzen baitute ibilbidea.

“Egitasmo honekin mendi duatloi proba gehiago sortzea lortu dugu, azken batean, mendi duatloia indartu nahi baitugu. Mendi duatloia minimotan dago. Hau ondo ateratzen bazaigu, aurrera egingo du. ”.

Ezkio-Itsaso

Kontzertua Igartubeiti baserrian

Zumarragako Antioko XXVIII. Musikaldiaren barnean, urriaren 1ean, Elena Barbé sopranoaren eta Gerardo Rifón pianistaren kontzertua izango da Igartubeiti baserriko dolorean, arratsaldeko 6etan.

Ormaiztegi

San Migel eguneko festa

Irailak 23, ostirala:

19:00etan: Ormaiztegiko III. Sasi pilota txapelketaren finala, Zubipe kiroldegian.

Irailak 24, larunbata:

10:00etan: Mendi bizikleta proba, Udaletxe aurretik hasita. Izen ematea 9,30etan irekiko da.

12:00etan: XX. San Migel toka txapelketa herrikoia, plazan.

Ondoren: XVI. Harrikalari txapelketa herrikoia Berjaldegi plazan. Harriaren pisua: 2.080 gr.

16:00etan: XXI. San Migel mus txapelketa, herritarrentzat, Eliza atarian.

16:30: Haurrentzako jokoak Guraso Elkartek antolatuta, Udaletxe ondoko plazan.

Jarraian: Guraso Elkartek antolatuta, txokolate jana, herriko plazan.

17:45ean: V. San Migel patata tortilla txapelketa, herritarrentzat, plazan.

20:15ean: Ardo kupelaren irekiera, herriko enparantzan.

21:00etan: Afari herrikoia, herriko enparantzan.

Jarraian: Musika doinu alaituriko giroa izango da.

Beasain

Iraileko ekintzak

Irailak 25, igandea:

08:30ean: Mendi irteera: Kanpaldia Pirinioetan. Antolatzailea: Aizkorri Mendizale Elkartea

Irailaren 30etik urriaren 9ra:

Iker Dorronsoro eta Manolo Fernandezek pintura erakusketa ikusgai izango da, Usurbe Antzokiko Erakusketa Aretoan.

Boluntarioaren astea

Irailak 30, ostirala:

16:30etik 19:30era: 'Ametsen basoa' hurrei zuzendutako sentsibilizazio eta garapenerako heziketa tailerrak, Gernika Pasealekuan.

Urriak 1, larunbata:

10:00etatik 14:00etara: Haur-jolasak: puzgarriak.

10:00etatik 14:00etara: Elkarteen stand-ak ekintza eta material ezberdinez hornituak.

11:00etan: Musika animazioa.

11:00etan: Grafiti tailerra.

11:30ean: 'Gurea' abesbatzaren emanaldia.

12:00etan: Beasainen eskarmentu gehien duen erakundeari aitortpena.

12:00etan: Elkarteen arteko patata-tortilla lehiaketa. Dastatzaileak: Gorka Salaberria/Jose Ignacio Duhau (Rubiorena Jatetxea); Jose Ignacio Urkiola (Urkiola Jatetxea); Iban Mate (Dolarea Jatetxea); Veronica Varola (Xerbera Jatetxea).

13:00etan: Afrikako janariaren dastaketa.

13:00etan: Ze's Pereiras Portugalgo taldearen saioa.

Urriak 3, astelehena:

16:30-19:30: Afrikar dantzen tailerra, Asmuben. Izen ematea: Udaleko Gizarte Ongizate Sailean, irailaren 26tik 30era. (talde mugatua).

Urriak 5, asteazkena:

18:30: Udaleko beka jaso duten gazte laguntzaileen topaketa, Udaletxeko Batzar aretoan.

Urriak 7, ostirala:

19:30: Boliviako 'Ensamble Moxos' taldearen musika eta folklore emanaldia, Usurbe Antokian.

PSIKOLOGI KLINIKOA

ARGI

Jose Ramon Pato Prieto
Psikologian lizentziatua
Elkargokide zenbakia: E-2644
RPS: 420/01

Helduen, umeen, bikoteen eta sexologi tratamenduak

AURRE ZITA ☎ 943 887 221 ☎ 610 020 041
JM Arana, 1 - 2. esk. esk. BEASAIN

Ikaskide
irakaskuntza eta pedagogia

2011-2012 MATRIKULA ZABALIK

ESKOLA LAGUNTZA: Lehen Hezkuntza, DBH, Batxilergoa, Moduloak

HIZKUNTZA ESKOLA: Ingelera eta frantsesa

UNIBERTSITATE MAILA: Goierriko Unibertsitatea (MU)

MEKANOGRAFIA eta INFORMATIKA

LAGUNTZA PEDAGOGIKOA: Irakurketa, kalkulua, ikasketa teknikak

Joan Iturralde, 5 eta Urbialde, 7 - BEASAIN
ikaskide@ikaskide.net 943 160 120 - 685 722 403 - 675 006 462

ZUBARA
Eraikuntzak s.l.

Promozioko, Eraikuntzak, Erreformak...

www.zubara.es
943 65 34 93 - 649 46 32 89
ABALTZISKETA

Zerain-Ordizia

Goierri Ekologikoa hamabostaldia

● **Irailak 22, osteguna:** 19:00etan, hitzaldia: 'Osasunerako bidea elikaduraren bitartez'. Hizlaria: Jesus Larretxea. Ordiziako D'Elikatuz zentroan.

● **Irailak 24, larunbata:** 10:00etan, bisita eta tailerra: 'Ogi biologikoa nola egin'. Xabi Akizu eta Marilu Gardoki. Ezkio-ltsasoko Hariztizabal baserrian. 15 euro.

● **Irailak 27, asteartea:** 19:00etan, hitzaldia: 'Sendabelarrak eta jateko diren belarrak'. Hizlaria: Maialen Sarasola. Zeraingo Kultur Etxean.

● **Irailak 29, osteguna:** 19:00etan, mahai ingurua: 'Kontsumo taldeak: esperientziak elkartrukatzea eta etorkizuna'. Ordiziako D'Elikatuz zentroan.

● **Urriak 1, larunbata:** 10:00etan, bisita eta tailerra: Abaltzisketako Naera Haundira bisita. Mermelada ekologikoa. Angela Linskey. 15 euro.

● **Urriko larunbatetan:** Sukaldaritza makrobiotikoa ikastaroa, Jesus Larretxearekin. 180 euro.

Ikastaroetan eta tailerretan parte hartzeko alde aurretik eman behar da izena, lekua mugatua denez, Ordiziako Goierriko Baratzan: 943087498.

Ordizia

Artisaualdiaren aurreko ekintzak

lazko etenaren ondoren, urriaren 7tik 9ra izango da Ordizian Artisaualdia. Azokaren atariko, bi ikastaro antolatu dituzte Barrenan, helduentzat.

Urriaren 3tik 5era:

10:00etatik 13:00etara: Gerriko telar ikastaroa. Gerriko telarraren oinarritzko erabilera erakutsiko da eta ardi artilearekin oihala egingo da. Mireia Segura izango da irakaslea. Matrikula: 20 euro.

Urriaren 4tik 6ra:

'Artilearen lan artisauaren hastapena' ikastaroa, helduentzat. Artilearen erabileraren hastapenak eta teknika bakoitzaren oinarritzko ezagutza da ikastaroaren helburua. Mar Joaquin del Rio izango da irakaslea. Ondorengo ikastaroaren egutegia: urriak 4, 15:00etatik 19:00etara, ardatz goruaren bidezko irutearen hastapena; urriak 5, 15:00etatik 19:00etara, fieltroaren modelatzearen hastapena; eta urriak 6, 9:00etatik 13:00etara, tindaketaren hastapena eta 15:00etatik 19:00etara, nuno fieltroaren hastapena.

Ikastaroetan parte hartu nahi duenak difusion@gabiltza.org posta elektronikora mezua bidali edo 615766287 telefono zenbakira deitu behar da.


Ormaiztegi

Familiantzako tailerrak larunbat arratsaldetan

Zumalakarregi museoak antolatutako familiantzako tailerretan, irailean, 'XIX. mendeko garraiobideak' gaia ari dira lan-tzen. Trenak eta baporeontziak landu dituzte aurreko larunbatetan, eta irailaren 24an, aireko garraiobidearen inguruan arituko dira; hain zuzen ere, globoaren inguruan. Ikastaroak, 17:30etik 19:00etara izaten dira, dohainik. Izena emateko: 943889900-mzumalakarregi@gipuzkoa.net.

'Triangulu' pintura erakusketa

Talde erakusketa da 'Triangulu' erakusketa. Javier Soto, Iker Valle, Jesus Lopez Zulueta, Michelle Neurrise, Patxiku Gimón, Peio Goello, Jose Luis Elexpe 'Pelex' eta Ricardo Pascualen talde lana da. Urriaren 7ra arte dago ikusgai, Barrena kultur etxean.



MUJIKA
LIBURUDENDA

Tel. / faxa: 943 88 11 94
Kale Nagusia, 19 ORDIZIA

Goi
Goierritarra aldizkaria

Egin harpidedun

902-82 02 01
Astegunetan 08:30-20:30
Larunbatetan: 09:00-13:00

harpidetza@hitza.info

Urbialde plaza, 7 behea
Beasain



ASEPLAN S.L.
A HOLKULARITZA - ENPRESAK

KONTABLEA
JURIDIKOA
LABORALA
FISKALA
MERKANTILA
INMOBILIARIA
FINKEN ADMINISTRAZIOA



Tel.: 943 887 129
Oriamendi 15, behea

BEASAIN

Tel.: 943 086 420
J.M. Iturriotz, z/g

Beasain

Arana-Bideluzeko jaiak

Irailak 23, ostirala:**18:00etan:** Buruhandiak eta txistulariak.**19:00etan:** Txokolate-jana umeentzat.**20:00etan:** Disko-festa.**24:00etan:** Disko-festa.**Irailak 24, larunbata:****12:30ean:** Baxoerdi-edate herrikoia.**20:00etan:** Euskaraokea.**24:00etan:** Kontzertua.**Irailak 25, igandea:****12:00etan:** Toka erretiratuentzat.**12:00etan:** Baxoerdi-edate herrikoia.**12:00etan:** Herri kirolak umeentzat.**18:30ean:** Haurrentzako ikuskizuna: 'Kortxea doktorearen abenturak'.**19:00etan:** Luntxa Aitzgorri Mendizale Elkartean, Arana, Bideluze eta J. M. Iturriotz kaleetan jaio eta bizi diren erretiratuentzat. Puzgarriak.

Idiazabal

San Migel jaiak Urtsuaranen

Irailak 30, ostirala:**19:30ean:** Jaiei hasiera emango zaie suziri eta kanpaiekin.**Ondoren:** Afaria.**22:30ean:** XVIII. Mus azkarra lehiaketa.**Urriak 1, larunbata:****12:00etan:** Meza.**Ondoren:** Txistulariak, Xabier Zeberio eta Anjel Mari Peñagarikano bertsolariak, eta Dani Oiarbide eta Peio Urdangarin trikitilariak.**14:00etan:** Udaletxe bazkaria.**16:30ean:** Patxin eta Potxin pailazoen ikuskizuna, jokoak eta txokolate jana.**Ondoren:** Bertsolarien bigarren saioa.**Iluntzean:** Afaria eta trikitixa.**Urriak 2, igandea:****12:30ean:** Herri kirolak.**14:00etan:** Herri bazkaria. Iban Urdangarin eta Iker Zubeldia bertsolariak eta Dani Oiarbide eta Peio Urdangarin trikitilariak alaituko dute bazkaria.**17:00etan:** XX. Toka lehiaketa.

Ordizia

Ordizia Kantuz

Aurten ere antolatu du Hitzaro euskara taldeak 'Ordizia Kantuz' ekimena.

Irailak 23, ostirala:**22:00etan:** 'Lauroba', D'Elilkatuz zentroan.**Irailak 30, ostirala:****22:00etan:** '20 hatz', D'Elilkatuz zentroan.**Urriak 7, ostirala:****22:00etan:** 'Barikuan', D'Elilkatuz zentroan.**Urriak 14, ostirala:****22:00etan:** Kantu afaria Kuxkuxtu txarangarekin.

Lazkaibar auzoko jaiak

Irailak 24, larunbata:**18:00etan:** Jai-batzordeko ordezkari batzuk Arangoiti Egoitzara joango dira, han dauden Lazkaibarko auzotarrak bisitatzeraz.**20:00etan:** Poteo-herrikoia. Ondoren Beti-Bizi elkartearen afari-merienda egingo da eta Mus-partida jokatu da.**Irailak 25, igandea:****10:00etan:** Goiz eresia auzoan. Jesus eta Maitek botako dituzte suziriak.**12:00etan:** Beasaingo Andre Maria Zeruratuaren Parroki Elizan, Meza hildako auzotarren alde, urtebete honetan hildakoen alde batez ere. 12etako ohiko Mezatan egingo da eskaintza hori**14:30ean:** Senidetasun-bazkaria. Bazkalondoan, Beasaingo Txistulariek joko dute eta Dantzari batek aurrekua dantzatu du.**over** Urraki
*Bidaietan adituak***LAISTER WEB ORRI BERRIA:**www.urrakibidaia.comKale Nagusia 42, behea **BEASAIN**
Tel.: 943 80 40 15 Faxe: 943 80 55 79
urraki@over.es www.over.es**ARANDIA**
GARAJEA
MULTIMARKAESEKIDURAK
PNEUMATIKOAK
BIRPROGRAMAZIOAK
POTENTZIA TXIPAKN-1, z/g OLABERRIA
☎ 943 88 09 47**KIKO ENEA taberna**Ostiraletan eta larunbatetan
plater konbinatuak
Bazkari eta afariak enkarguzGipuzkoa, 13
T. 943 084 123
ORDIZIA



Idiazabalgo posta-txartela XX. mende hasieran



ondoeta

1983 1987 - 2006
URAS

**GARAJE INDUSTRIA ETA FAMILIARTEKO
ETXEBIZITZETARAKO ATE METALIKOETAN
ESPEZIALDUA, ESKUZKOAK ETA AUTOMATIKOAK**

E-mail: ondoeta@ondoeta.com www.ondoeta.com

☎ 943 88 31 02 - 943 88 74 51 Faxe: 943 88 08 72

201 Industrialdea, 18. pabilioia OLABERRIA


Zuriñe
Ederginiza

MANIKURAK, PEDIKURAK, AURPEGIKO
TRATAMENDUAK, GORPUTZEKO
TRATAMENDUAK, MAKILAJEAK,
DEPILAZIOAK, BRONTZETATZEAK...

Urrian promozioa!

Tel.: 647 314 771
Garmendia Otaola, 5 - beheka 3
BEASAIN



Iñauti Hartz Klinika

ESTIBALIZ JUAREZ ALDANONDO 602 Zbk. KOLEGIATUA

HAURREN ETA HELDUEN ODONTOLOGIA OROKORRA
RADIOGRAFIA PANORAMIKOA ETA ZEFALOMETRIKOA
ODONTOLOGIA ESTETIKOA (ZURIKETA)
KIRURGIA
ORTODONTZIA - PERIODONTZIA

JOAN ITURRALDE, 3 BEASAIN
☎ 943 88 46 28

ZAHARRA • BERRI
IGELTSEKITZA ETA ERAIKUNTZA

A. Almeida
620 32 62 92
943 18 03 72
aiakoerrota@terra.es
ATAUN



Eraikuntzak
Gremioen koordinaketa
Erreforma orokorrak
Teilatuak

berrikuntzak // bainuak // sukaldeak // zeramikak // hidromasajea // gremioak // proiektuak

Barandiaran Zeramikak

Beasain senpere 7
943 887 972
www.Barandiaranzeramikak.com

dekorazioa // diseinua // irisgarritasuna // aholkularitza teknikoak // laguntzen bideratzea

Zure momentua da...

Matrikula irikita




Kirol instalakuntzak

igerileku klimatizatuak (aisirako, irakaskuntza eta haurrentzako igerilekuak, jacuzzia eta hidrotterapia gunea), tobogana, terma gunea (sauna finlandiarra, infragorri sauna, lurrin bainua, izotz iturria, dutxa sekuentzialak eta etzaulki termikoak), estaligabeko igerilekuak, fitness zentrua, pabiloia, frontoia, squashak, arrokadromoa, mahai tenisa, arku tiroketa gela, tatamia, balio anitzeko gelak eta batzar aretoa.

Ikastaroak

))) Aerobika / Step))) Indoor zikloa))) Mantentze gimnasia
))) G.A.P.))) Fitness (bakoitzari egokituta)))) Pilates
))) Hirugarren adineko gimnasia))) Terapeutika))) Atzegi
))) Down Igeriketa))) Haurdunentzat igeriketa))) Haurtxoen igeriketa
))) Helduentzako igeriketa))) Aquafitness


e. info.antizar@masquatro.com t. 943 887 900



UO11

**NORA JOAN
AUKERATU ZUK
GAINONTZEKO
EGINGO DUGU GUK**

abio@abio.es
www.abio.es



VIAJES
ABIO

BIDAIAK
943 805 311

2x1 + %10

ITSASBIDAIETAN ESKAINTZA ITZELA UDAZKEN HONETAN

2012rako ITSASBIDAIEN KATALOGOA ERE PREST!

Eskaintza hau irailaren 30a baino lehen egindako erreserbatarako izango da baliagarria.
informazio gehiago Abio Bidaiak.

ADRIATIKOA, GREZIAR IRLAK ETA TURKIA > 410€*-tik

KOSTA URDINA, ITALIA ETA SARDINIA > 334€*-tik

KORSIKA, SARDINIA, SIZILIA ETA MALTA > 315€*-tik

EURODISNEY-ra JOAN NAHI BADUZU ERRESERBATU ORAIN

AURRERATU ZAITEZ ETA AURREZTU EZAZU DIRUA

Urriaren 17a baino lehen erresebatuz gero neguan Eurodisney-z gozatzeko eskaintza ezinhobeak dauzkagu bidaietan, egonaldietan, bazkarietan, etabar. informazio gehiago Abio Bidaiak.



ORAIN ZURE BIDAIAREN EROSKETA GURE WEBGUNEAN EGIN DEZAKEZU
www.abio.es